

AGUR BEGION LORE (1)

<i>Elorri liburua (ELR)</i>	<i>Excelsior aldizkaria (EXC) (2)</i>	<i>Arantzazu aldizkaria (ARAN)</i>	<i>Dos Meses (ald.- DMA) (2)</i>
Beti zindun berea Jaunak, Andra Mari, Jaunaren asmoetan lore ziñan beti; lore, iretargi eta Egubarri-senti	Beti zindun Berea Jaunak, Andra Meri. Jaunaren asmoetan Lore ziñan beti.		Beti zindun Berea, Jaunak, Andra Mari. Jaunaren asmoetan lore ziñan beti.
Bion Semeagaitik egingo zinduzan Jaungoikoak zitori, leiar ta lurrinkai. Ontasun betearen atsegin ziñean, atsegin eta poza, poza ta ezkongai.	Bion Semeagaitik Egingo zinduzan Leiar ta lurrinkai. Jainko guztiz onaren Atsegin ziñean, Atsegin eta poza, Poza ta ezkongai, Betiraun utsean.		
Irutan Bakar Arek amesti zenkusan –bere Emazte, Alaba ta Ama baizintzazan–, oraindik ezer etzan aintxiña-ertzean.	Irutan bakar danak Amesti zenkusan –Bere alaba, Ama, Ta emazte bazintzan–! Oraindik ezer etzan Aintxiña oso urrun Estali aretan.		
Betidanik beregan alkar-zale bizi dan Irutasun Santuak kanpotiko maitasun oso baten pozetan, Seme-Jainkoa Jainko Gizon egin zedilla erabagi eban.	Betidanik Beregan Alakar maitez bizi dan Irutasun santuak, kanpotiko maitasun Bete baten pozetan, Seme Jainko Jainko- -Gizon egin zedilla Erabagi eban.		
Eta izan eitekezan izaki danetan, bere diñak zirean agurtza eskeinketan Aitak, Seme laztana, mende-buruetan,	Ta izan al eitekezan Izaki danetan, Bere diñak zirean Agurtza eskeinketan Aitak Seme laztana Mende buruetan.		
giza-jantziz ekusan begitu aretan, zeu artu zindun gogoz asmo bikañetan alako Semearen Ama zintekezan.	Giza jantziz ekusan Begira aretan, Zeu artu zindun gogoz Asmo bikañetan Alako Semearen Ama zintekezan		
Emaztetzat autatu zindun Gogo Deunak; Amatzat, Seme-Jainko gizonduko zanak. Kutunki zerabiltzan Irutan Bat danak.	Emaztetzat autatu Zindun Gogo Deunak, Amatzat Seme Jainko Gizonduko zanak. Kutunki zerabiltzan Irutan bat danak.		
Iturri, leize, muiño, mendirik, legor ez ibai, ez lur orporik etzan, zu, Urtziren onu deunetan, argitsu jaio aurretik.	Leize, iturri, mendi, muñorik Legor ez ibai, ez lur-orporik Etzan, zu Jainko onu deunetan. Argitsu jaioa aurretik.		Leize, iturri, muño, mendirik, legor ez ibai, ez lur-orporik etzan, Zu Jainko onu* deunetan argitsu jaio aurretik.
Ezer etzan oraindik: eguzki ez izarrik. Baiña zu ba-ziñan.	Ezer etzan oraindik: Eguzki ez izarrik, Baiña zu bazintzan.		Ezer etzan oraindik: eguzki ez izarrik, baiña Zu bazintzan.

<i>Etorri iburua (ELK)</i>	<i>Excelsior</i> aldizkaria (EXC)	<i>Arantzazu</i> aldizkaria (ARAN)	<i>Dos Meses</i> (ald.) (DMA)
Aintxe zenbiltzan Jainko-asmotan ago-ezpane z leize sakonak, arau jakiñez, Ardura Zaarrak inguratzean; aintxe lur-gaiña, zeruak landuz, txori kantuz ta egurats argiz mamindutean; iturri-begi gozoz legorra naro ezotu t'oiñarriz lurra tinkatutean.	Antxe zenbiltzan Jainko-asmotan Ago ezpane z Leize sakonak (3) Arau jakiñez Arduraz Jaunak Inguratzean; Antxe lur-gaiña, Zeruak landuz, Txori kantuz da Egurats meez Mamindutean; Iturri-begi Gozoz legorra Naro ezotu Ta oiñarriz lurra Tinkatutean.		Antxe zenbiltzan Jainko-asmotan ago ezpane z arau jakiñez arduraz Jaunak inguratzean; antxe lur-gaiña, Zeruak landuz, txori kantuz da egurats meez mamindutean; iturri-begi gozoz legorra naro ezotu ta eiñarriz lurra tinkatutean.
Aintxe ziñean Indar-Aitaren ames eta arno, itxas-gelgaitzen uin gogorrek are ta arkaitzen barru bilduta ibai-uberkek ur ariñentzat edegi zitun solas uanean.	Aintze [<i>sic</i>] ziñean Itxas gogorra Are ta aitzeko Ertzez esitu Ebanean da Ur loka ariñak Uberkadatu Ibai-uberkek Ur ariñentzat edegi zitun solas- uanean.	Antxe ziñean itxas gogorra are ta aitzeko ertzez esitu ebanean da ur loka ariñak uberkaratu
Garbi ta megatx, beti jostari zenbiltzan aintxe. Atsegin beti, betiraun sartu aren ziargi.	Argi ta garbi, Beti jostari Zenbiltzan aintxe. Betiraun sartu Aren itargi! Atsegin beti.	Argi ta garbi, beti jostari Zenbiltzan aintxe. Atsegin beti! Betiraun sartuaren itargi.	Argi ta garbi, beti jostari zenbiltzan aintxe. Betiraun sartu aren itargi. Atsegin beti.
	San Gabrielen Argizko arnasa, Murillo ernai Baten amesa, Duns Eskotoren Adit zorrotza, Jerman deunaren Suzko otoitza, Zeru jazoan Margo urdiña, Edur zuria, Uran oztiña, Mao gorria, Urre zarra ta Iretargia Euki baneukoz Andra Maria, Zure irudi Sortzez Garbia Zintzo ta zoli Olerki onetan Argizko margo z Lotu dagidan.		
	Goizeko izarra Lañotan legez Ageri zara, Bekatu baltzez Inguraturik; Eder; Izarra Ainbat garbirik.		

<i>Elorri liburua (ELR)</i>	<i>Excelsior aldizkaria (EXC)</i>	<i>Arantzazu aldizkaria (ARAN)</i>	<i>Dos Meses (ald.) (DMA)</i>
	<p>Iñoiz ta iñok Lausotu bako Izarra zara, Santa Anaren Sabel altzoan Orban gaberik Erne ziñean Zorioneko Unetik.</p> <p>Ama ederra, Lur zabalean Azaldutako Intz gardenena Aize bigunak Aldatu badau Usain gozorik,</p> <p>Zeure ondotik Igarotean Batu ebana, Aixe usaiñik Leunena.</p> <p>Itargiaren Zidar ganean Zein zara eder, Zain zagoz lerdan, Sortzez-Garbia! Zeruetara Zakusat zuzen Irudi garden, Argia.</p>		
<p>Garbia banintz zure argia lausotu barik erabilteko. Aur banintz beintzat edo aingeru zure izen ori agoz artzeko!</p>		<p>Garbia banintz zure argia lausotu barik erabilteko. Aur banintz beintzat edo aingeru zure izena agoz artzeko!</p>	
<p>Zuzi zarean mirari orrek, xautu nagizu ainbat argitan. Zu zaren leiar, zu zaren edur,</p>		<p>Argia zarean mirari orrek, Garbi nagizu ainbat argitan. Zu zaren leiar, Zu zaren edur,</p>	
<p>Izar-izpia, segail, zolirik, gau itzalean odei artetik zabala poztuz azaltzen dan lez, ager ziñan zu –pekatu baltzez illun egoan mundu onetan– gizadiaren Erospen-senti. Eder. Euria ez ainbat garbi.</p> <p>Ako sarrera, Orbangabea, munduan egin zendun sarrera. Ako ditzira, oben-legea urratu eban, zure ditzira</p>		<p>Izar-izpia mee zolirik Gau itzalean odei artetik Zabala poztuz azaltzen dan lez, Ager ziñan zu –pekatu baltzez illun egoan Mundu onetan– Gizadiaren Erospen-senti! Eder. Euria ez beste garbi.</p> <p>Ako sarrera, Orbangabea, Munduan egin zindun sarrera! Ako ditzira, oben.legea Urratu eutzun argi-ditzira.</p>	

<i>Elorri liburua (ELR)</i>	<i>Excelsior aldizkaria (EXC)</i>	<i>Arantzazu aldizkaria (ARAN)</i>	<i>Dos Meses (ald.) (DMA)</i>
Egin zinduzan!... maiteki egin; zitori egin eta izpi. Olerkaria ames leunari lotu oi dan lez lotu zen gero Jainkoa zuri. Zu zindun apar eta iretargi!...		Egin zinduzan!... maiteki egin; Zitori egin eta izpi! Olerkaria amets leunari lotu oi dan lez, lotu zan gero Jainkoa Zuri. Zu zindun lore, eta iretargi.	
Buru goibeldu-minduarentzat erlus itxaro-pentsamentua. Zer ete ziñan lur baltzarentzat, izarren izar aukeratua?		Buru goibeldu-minduarentzat Erlus, itxaro-pentsamentua. Zer ete ziñan munduarentzat Bake gogamen aragitua?	
Zelan estali al izan zitun Ana deunaren ama-erraiak errugabeko zure soin orren printza zurien zidar-dirdaiak? Zelan etziran argiz itxutu beitu eutsuen giza begiak? Zenbat erraiñu eben ikusi(8) zugan aingeru begi-garbiak. Zer argiago, Ama, zu baiño? Zer zuriago?		Zelan estaili al izan zitun San Anaren ama-erraiak Orbangabeko zure soñ orren itargiaren zidar-dirdaiak? Zelan etziran argiz itxutu Beitu eutzuen giza-begiak? Zenbat erraiñu ikusi eben Zugan aingeru begi-garbiak? Zer argiago, Ama, zu baiño? Zer zuriago?	
Zuria goiak-zearka doian ipar-odeien lits meia. Ondar gorrian itxas lokeak esne bitsezko ertz seia. Ames uzitan zakusdan, Andre, soin ori baiña garbia: Arzurizkoa zure gorputza, arima babil argia. Zentzuari zuk ez diñotsazu garbitasuna ez bada. Samurtasunik gozoeneko neskatx leunena zeu zara. Irudi guren, lili-adaska, grazi-ontzia, lillura..., zeure gosetan jasoten doguz begi zumelok zerura. Oi, sugar zaren jaseko Birjin, bular zirtazko zerua! Usaiñez ortxe beratu zendun abots-kirola soiñua. Maitetasuna maite dozuna, larrosa-buru biztua..., “Magnificat”-en bertso bakoitzak afoiñu marra darua.	Zuria goiak zearka doian Lumazko odei lits meia. Arratsaldeko itsas lokeak Esne bitsezko ertz seia. Ames berotan zakusdan, Andre, Soin ori dozun garbia! Zure gorputza arzuri da ta Zure arima argia. Zentzuari zuk ez diñotsazu Garbitasuna ez bada. Samurtasunik goxoeneko Neskatx leunena zeu zara. Irudi guren, lili adaska, Grazi ontzia, lillura, Zeure gosetan jasoten doguz Begi gaixuok zerura. O, sugar zaren iaseko Birjin, Zure bularra zerua! Usaiñez ortxe beratu zenun Zeure abotsaren soiñua. Maitetasuna maite dozuna Larrosa gori, biztua, “Magnificat”-en bertso bakoitzak Zeure ats ona daroa.	Zuria goiak zearka doian Lumazko odei-lits meia. Arratsaldeko itxas lokeak Esne-bitsezko ertz seia. Ames berotan zakusdan, Andre: Soiñ ori baiña garbia! Zure gorputza arzuri da ta Zure arima argia. Zentzuari zuk ez diñotsazu Garbitasuna ez bada. Samurtasunik gozoeneko Neskatx leunena zeu zara. Irudi guren, lili adaska, Grazi ontzia, lillura, Zeure gosetan jasoten doguz Begi gaixuok zerura. O, sugar zaren iaseko Birjin: Zeure bularra zerua! Usaiñez ortxe beratu zendun Zeure abotsan soiñua. Maitetasuna maite dozuna, Larrosa-buru biztua... “Magnificat”-en bertso bakoitzak Zeure ats ona darua.	
Betiraunean egiña dabe oztiña zure begiak. Arpegi izeki orretan dozuz Jaunaren musu aundiak. Ule bigunok sorbaldan beera urre ta ezti ariak, ezpan emeok goizaldezk daukaz gaiñez darizun irriak.	Goi urdañari [urdiñari?] kendu eutsien Oztiña zure begiak, Ta udalenari odol ozena Matralla orren guriak. Zure uleak sorbalda bera Urrezko ezti ariak, Ezpan emeok loratan daukoz Gaiñez dagizun irriak.	Betiraunari artua dabe Oztiña zure begiak. Udalenaren odol gordiña Dauke masaillon guriak. Ule bigunak sorbalda-bera Urre ta ezti-ariak, Ezpan emeok loratan daukoz Gaiñez darizun irriak	

<i>Elorri liburua (ELR)</i>	<i>Excelsior aldizkaria (EXC)</i>	<i>Arantzazu aldizkaria (ARAN)</i>	<i>Dos Meses (ald.) (DMA)</i>
Zein eder ditu zure koroiak amabi izarto brintzatu! Adimen orrek gogamenezko argi obeak ba-ditu. Zuk esandako berba gitxiak, zazpirak dira jakintsu, jario ernaiz diraute ozen bulko gurenon ixpillu.	Zein eder diran burestun baten Amabi izar argitsu! Zure adiak gogamenean Bikañagoak baditu. Zuk esandako bost berba arek Eguzki printzak dizditsu Eguzki printzak dizditsu eta Zeure gogoen ispillu.	Zein eder ditu burestun orrek Amabi izar argitsu! Zure adiak gogamenetan Bikañagoak baditu: Zuk esandako zazpi itz arek Eguzki printzak dizditsu. Argi jarioz diraute ozen Zeure bulkoen ispillu.	
Agur, garbia, beti garbia, zitori, miro, garia. Jaungoikoaren amesik leunen Erospen-egun-sentia. Lore zaitugu, diranetako loretan, lore garaia. Zeu zara gure zorion-sustrai, abaro-abe ta argia.	Agur Maria beti Birjiña, Zitori eta garia, Zeu zara gure zorion, sari Osasun eta bizia,	Agur Garbia, beti Garbia! Zitori eta garia, Jaungoikoaren ametsik leunen, Erospen-egun-sentia. Lore zaitugu, gizadiaren Loretan, lore garaia. Zeu zara gure zorion-sustrai, Bizi-gare, ta argia	
Ezpan gozuok amasa doguz, begi barriok izar bi, esku samurrok kabirik epel, beso altsuok erruki. Zeu zara frutu bedeinkatuaz gure naikunen pozkari.	Zure eskuak laguntza doguz, Zure begiak itargi, Ta zure “frutu bedeinkatua” Biotz-arimen pozkari.	Zure ezpanok arnasa doguz, Zure begiok izar bi, Esku xamurrok abitxu gozo Beso altsuok erruki Ta Zure “frutu bedeinkatua” Gure naikunen pozkari.	
Agur, Maria, Birjiñen gara ames altu ta iretargi.	Agur Maria, neure begion Edur, lore ta itargi.	Agur Maria, neure Begion Edur-lore ta itargi!	

OHARRAK:

Funtsezko hiru bertsiok dauzkagu olerki honenak: EXC aldizkariakoa (1954), ARAN aldizkariakoa (1954) eta ELR liburukoa (1962). DMA-koak askoz laburragoa da, eta badirudi *Excelsior* aldizkarian argitaraturikoaren zati batzuk, beren horretan, jaso zituela, besterik gabe; baina lerrotxo bat falta da. EXC eta ARAN aldizkariak urte berean argitaratu zuten; seguruenik tarte horretan irabazi zuen saria Zarautzen. Uste izatekoa da ARAN aldizkarian argitaraturiko bertsiorekin irabazi zuela saria, nahiz eta ez daukagun hartara bidalitako jatorrizko testurik. EXC aldizkarian badago erdi inguruan, olerki-zati bat beste inolako bertsiotan ez dagoena. Uste izatekoa da hori dela jatorrizkoa; sarirako kendu egin zuen nonbait parte hori, gabe ageri baita ondoko bertsiok guztietan. Saritutakoa aldatu egin zuen ELRL-n; horren gain aldaketa txikiren batzuk egin zituen eskuz, eta horrela pasatu zen ELRG sortara, eta azkenik ELR liburura (1962) (ELR 2. ediziokoa berdina da). ELR-ko testua ia erabat bat dator ELRG sortakoarekin, salbu ezberdintasun txikiren batzuk.

(1) “Agur begion lore” tituluarekin agertu zen *Excelsior* aldizkarian; sarikeratara “Begion Lore” tituluarekin bidali zuen; DMA-n, berriz, “Cum eo eram” latinezko tituluarekin.

(2) *Excelsior* eta *Dos Meses* Arantzazuko teologi ikasleen etxeko barne-aldizkariak ziren.

(3) Lerro hau janda edo dago MDA aldizkarian.